



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Irunberri, 1990: Arroilaren negarra**
 Egilea / Autor: **Pako aristi**
 Saila / Colección: Lekuko, 17
 ISBN / EAN: 978-84-9109-866-9
 Salneurria / Precio: 22 €
 Orri kopurua / N° páginas: 272
 Formatua / Formato: 160 x 240 mm - Rústico
 Materia: Helduentzako literatura / Literatura adultos



Lana / La obra

1990eko ekainaren 25ean Jon Lizarralde, Susana Arregi eta German Rubenach bainatzera jaitsi ziren Irati ibaira, Irunberriko Arroilaren erdian. ETako militanteak ziren, Nafarroa komandoa osatzen zuten, eta as-tebete zeramaten kanpin batean, Guardia Zibilaren aurkako ekintza baterako informazioa jasotzen.

Une hartan, handik igaro zen Nissan Patrol bat geratu, eta Jose Luis Hervás sarjentua jaitsi zen haiek identifikatzera. Ekintzaileek tiro egin eta hilda utzi zuten agentea. Gero, ihes egin zuten. Ondorengo hogeitortu orduan, Guardia Zibilak arroilaren bi irteerak itxi zituen, eta ez zen jakin zer gertatzen ari zen han barruan. Ondorioak latzak izan ziren: 20:45ean German Rubenach aurkitu zuten buruan tiroa zuela; ospitalera eraman, eta bizia salbatu zuen. Biharamunean, 08:45ean, Jon Lizarralderen eta Susana Arregiren gorpuak aurkitu zituzten. Susanak bi tiro zituen buruan, Jonen tiro bat buruan eta ibaiko ura biriketean.

Espainiako Barne Ministerioak suizidatu egin zirela esan zuen, eta kasua itxi. Baina kalean, ez zitzaion sinesgarritasun handirik eman bertsio ofizialari, ez jende arruntak, ez politikariek ez erakunde askok. Gertaerak eskandalua sortu zuen, eta protesta ugari, baita nazioartean ere. Zulo beltz bat bilakatu zen Irunberriko kasua Euskal Herriaren historia garaikidean. Gaur arte.

Ikerketa sakon baten emaitza da liburu hau. Lekukoak elkarrizketatu dira, sumarioa aztertu da, garaiko hemeroteca analizatu, eta ondorio argiak atera ditu ikerketa taldeak. Pako Aristik egokiro antolatu du informazio guztia ikerketa kriminal baten gisa, kontakizuna borobildu du erreportaje baten estilo bizi, eta hau da emaitza.

Egilea / Autor

Pako Aristi (Urrestilla, 1963). Kazetaritzan lizentziatua da. 21 urterekin atera zuen bere lehen nobela, *Kappa* (1985), eta geroztik idaztera dedikatu izan da, kazetaritza baztertu gabe. Genero asko landu ditu. Narratiban beste lau nobelaren egilea da, *Irene*, *Krisalida*, *Urregilearen orduak* (Espainiako Kritika saria, 1998) eta *Rosa itzuli da*. *Auto-stopeko ipuinak* ere idatzi du, eta liburu berezi batzuk ere baditu generoen mugak hautsiz eginak: *Gauza txikien liburua* eta *Note book*, guztiak Erein argitaletxean. Haur literaturan ere oparo jardun du.